



ARABAKO FORU SEKTORE PUBLIKOKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUA

| | |
|--|--------------------------------------|
| ARABAKO FORU SEKTORE PUBLIKOKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUA..... | 1 |
| ZIOEN AZALPENA..... | 2 |
| ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK..... | 6 |
| 1. artikulua. Xedea..... | 6 |
| 2. artikulua. Aplikazio eremua..... | 6 |
| 3. artikulua. Aurrekontu neurriak..... | 6 |
| 4. artikulua. EZ BETETZEAGATIKO ERANTZUKIZUNAK..... | 6 |
| 5. artikulua. Ordainketa..... | 6 |
| 6. artikulua. Itzulketa..... | 6 |
| I. TITULUA. TASAK..... | 8 |
| I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK..... | 8 |
| 7. artikulua. Kontzeptua eta aplikazio eremua..... | 8 |
| 8. artikulua. Baliokidetasunaren printzipioa..... | 8 |
| 9. artikulua. Ahalmen ekonomikoaren printzipioa..... | 8 |
| 10. artikulua. Tasen ARAU iturriak..... | 8 |
| 11. artikulua. EZARKETA ETA ARAUKETA..... | 8 |
| 12. artikulua. Aurrekontu aurreikuspena..... | 8 |
| II. KAPITULUA. Tasaren zerga lotura juridikoa..... | 8 |
| 13. artikulua. Zerga GAIA..... | 8 |
| 14. artikulua. Lurralde aplikazioa..... | 9 |
| 15. artikulua. SORTZAPENA..... | ¡Error! Marcador no definido. |
| 16. artikulua. Tasen subjektu pasiboa..... | 9 |
| 17. artikulua. TASAK ORDAINTEAGATIKO ERANTZUKIZUNA..... | 9 |
| 18. artikulua. Salbuespenak eta hobariak..... | 9 |
| 19. artikulua. Tasaren elementu kuantitatiboak..... | 10 |
| 20. artikulua. Ekonomia eta finantzA memoria..... | 10 |
| III. KAPITULUA. TasEN KUDEAKETA ETA LIKIDAZIOA..... | 10 |
| 21. artikulua. TasEN KUDEAKETA ETA LIKIDAZIOA..... | 10 |
| 22. artikulua. AUTOLIKIDAZIOA..... | 11 |
| II. TITULUA. PREZIO PUBLIKOAK..... | 12 |
| 23. artikulua. Kontzeptua..... | 12 |
| 24. artikulua. MUNTA..... | 12 |
| 25. artikulua. PREZIO PUBLIKOEN EZARKETA ETA ALDAKETA..... | 12 |
| 26. artikulua. PREZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIOA ETA KOBRANTZA..... | 12 |
| XEDAPEN IRAGANKORRA..... | 13 |
| XEDAPEN INDARGABETZAILEA..... | 13 |
| AZKEN XEDAPENAK..... | 13 |
| LehenENGOA..... | 13 |
| Bigarrena..... | 13 |



ZIOEN AZALPENA

-I-

Apirilaren 13ko 8/89 Legeak, tasa eta prezio publikoenak, tasen konstituzio arauketa bat eman zuen, 1978ko Konstituzioak sortutako esparru juridiko berriarekin eta Konstituzio Auzitegiaren epaiekin bat zetorrena. Horrela, erakunde publikoen sarrera ez finantzarioen artean benetako leku bat lortu zuten eta sarrera publiko koaktibo orokorretatik bereizi ziren. Beraz, zerbitzu eta jarduera publiko jakin batzuen zuzeneko onuradunei ordainarazi zitzaizkien zerbitzu eta jarduera horiek, herritar guztiei aplikatu beharreko zerga orokorrez finantzatu beharrean.

Gainera, ahalmen ekonomikoaren oinarritzko kontzeptua eta baliokidetasun edo mozkinarena sartu zuen, tasak antolatzeke, eskuarki zerga sistemaren nahikotasuna ez ezik haren ekitate eta zuzentasun osagaiak ere hobetzeko asmoz.

Bestalde, legeak tasa eta prezio publikoen araubide juridiko diferentea arautu zuen: horrenbestez, biak ondasun edo zerbitzu publikoak emateagatiko kontraprestazioak dira; prezio publikoan, ezartzen den harremana kontratuzkoa eta borondatezkoa da, eta tasan, aldiz, zergaren berezko koaktibitate oharra agertzen da, eta horrek lege mailako arau baten bidez sortzea eta aplikatzea eskatzen du.

Aurrekoarekin bat etorritz, Arabako Batzar Nagusiek azaroaren 20ko 64/1989, Arabako Foru Aldundiaren tasa eta prezio publikoei buruzkoa, onartu zuten, Ekonomia Ituna Toki ogasunak arautzen dituen Legea egokitzeko Legearen esparruan. Horren ondorioz, Itunaren 34. artikulua berriatzi zen; horren bidez, foru aldundiei esleitu zitzaizkien Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako zerbitzuak ematearen ondorioz sorturiko tasa eta prezio publikoen ordainarazpena, foru erakundeei dagokien eskumen orokorrari lotuta, hots, beraien zerga, finantza eta aurrekontu araubidea mantendu, ezarri eta arautzekoari lotuta.

Orduz geroztik, estatu eremuko zenbait aurrekontu eta zerga arauk, aurrekontua gauzatzeko foru arau batzuek, zerga arau batzuek eta Arabako foru eremuko zerga premiazko araugintzako foru dekretu ugari gaur egun indarrean dagoen arauketa aldatu dute, batez ere tasei buruz eta, hein txikiagoan, prezio publikoei buruz.

Tasa sistema arrazionalizatzeko eta errazteak tasak kentzea, aldatzea eta berriak sortzea eragin zuen, *ex novo* edo eskualdaketa edo eskuordetzaren bidez gain hartutako zerbitzu berrien arabera, hala bazegokion. Gainera, jarduera berriak edo bazeudenak areagotzea eta egokitzea ekarri zuen, ez bakarrik foru administrazioarenak eta haren erakunde autonomoenak, baizik eta Arabako foru sektore publikoko erakunde guztiena. Hain zuzen, bi sarrera publikoen arauketa sakabanatua eta konplexua izan da; horrek ezagutzea eta aplikatzea zailtzen du eta, beraz, herritarren segurtasun juridikoari eragiten dio.

Horrez gain, Europako Ekonomia Erkidegoan (gaur egun Europar Batasuna deritzon) sartu zen, eta horrek eskakizun batzuk dakartza zerga harmonizazioaren arloan; eskakizunok zuzeneko eragina izan dute tasen arauketan, balio erantsiaren gaineko zerga bateraezina zelako bazeuden salmenten gaineko zerga baten baliokidea zen egitura eduki ahal zuten tasekin.

Bestalde, prezio publikoaren figurak, arauketa aldakorreko sarrera publikoak, definizio eskasa izan zuen 1989ra arte estatuko antolamendu juridikoan. Gaur egun jurisprudentziari esker taxututa dago, estatuko legean definitzen den moduan, eta tasekin batera lege tresna berean baina bereizita arautzeko eskatzen du, tasen zerga izaera gorabehera. Horrela, tasak zergak dira, zeinen zerga gaia



zuzenbide publikoko araubidean zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea den, baldin eta subjektu pasiboak ukitzen, haiei eragiten edo onura ekartzen badiete. Jakina, kasu batzuetan, gerta daiteke zerbitzuen edo jardueren ezaugarriak direla eta, tasaren berezko oharrak bat etorri gabe, haien eremua mugatu edo zedarritzea, bi ezaugarri hauen arabera:

- a. Tasaren aurrekontua eskatzeak edo onartzeak derrigorrezkoa izan behar du ordaindu behar duen zergapekoarentzat.
- b. Erakunde publikoak ematen duen zerbitzuak edo jarduerak ez du sektore pribatuak emateko modukoa izan behar.

Zerbitzua ematean edo jarduera egitean aipaturiko bi oharrak (derrigortasuna eta lehiarik eza) bat datozenean, tasa izango da.

Aitzitik, zerbitzua edo jarduera sektore pribatuak emateko modukoa bada edo eskaeran derrigortasunik ez badago, prezio publikoa izango da.

Hala ere, ez da prezio publikoa izango baldin eta jarduera jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia lagatzean badatza eta ordaindutako kopurua obraren edo zerbitzuaren erabiltzaileak kasu horretan ordaintzen duen tarifa bada. Aitzitik, horrelakoetan zergaz besteko ondare prestazioa izango da, eta haren arauketak azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, sektore publikoko kontratuenak, xedatutakoari jarraituko dio (2018ko martxoaren 9an sartuko da indarrean).

-II-

Oinarrizko lege mailako aldaketak, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 Epaia, besteak beste, Arabako Foru Aldundiko foru sektore publikoak abenduaren 23ko 21/2015 Foru Arauaren bidez, aurrekontua gauzatzekoaren bidez (abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontuzko erregimenarena, aldatu zuen), ekonomiari, finantzei eta aurrekontuei dagokienez izan duen konfigurazio berria eta sarrera publiko horien edukiaz egin beharreko gogoeta kontuan hartuta, komenigarria da foru arau berri bat onartzea. Horrek legezketasunaren printzipioa eta zerga arloko lege erreserbaren printzipioa, aurrekontu unibertsaltasunarena, ez eragitearena eta kutxa batasunarena errespetatu beharko ditu, baita aurrekontu nahikotasunarena eta gaitasun ekonomikoarena ere. Gainera, araudi transbertsalari jarraitu beharko dio, besteak beste, genero berdintasunari buruzko araudiari, badagoen tasa edo prezio publiko bat aldatzerakoan edo tasa edo prezio publiko berri bat sortzerakoan hori arautzen duen arau proposamenaren genero eragina ebaluatzen behartzen baitu.

Arabako Batzar Nagusiek, 2017ko otsailean, Arabako foru sektore publikoan aplikatzekoak diren tasa eta prezio publikoen arloko foru araudi sakabanatua bateratu behar dela jakinda, Arabako Foru Aldundiari agindu zioten azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauaren, tasa eta prezio publikoei buruzkoaren, testu bateratu bat egiteko. Hala, hori izapidetzeko aldian, legegintzako berrikuntzak argitaratu dira, adibidez, tasa eta prezio publikoak arautzen dituen araudia aplikatuzetik salbuestea obra edo zerbitzu kontsezioen erabiltzaileek ordaintzen dituzten zergaz besteko ondare prestazioak; horiek berresten dute indarrean dagoen foru araua indargabetu, eta beste bat onartu behar dela.

Azaldutakoagatik, hauxe da foru arau honen helburua:

- a. Foru sektore publikoan dauden tasa eta prezio publikoen arauketa egungo egoerara egokitzea.
- b. Zergaz eta ekarpen berezietan besteko zerga sarrera publikoen sistema arrazionalizatzeko eta errazteko lege tresna bat eratzea, baliokidetasunaren printzipioa eta kontribuzio ahalmenarena uztartuz.



- c. Arabako foru sektore publikoko erakunde guztietara (kontzeptu berria, 1989an ez zegoena) zabaltzea diru sarrera publiko horiek jasotzeko aukera.
- d. Tasa eta prezio publikoen foru araudia aplikatzenetik salbuestea zergaz bestelako ondare prestazio publikoak, 9/2017 Legeak, sektore publikoko kontratuenak, funtsezko gisa jaso baitu ez dela aplikatzeko estatuko 8/1989 Legea, tasa eta prezio publikoena.
- e. Segurtasun juridikoa areagotze aldera, tasa eta prezio publikoen arau esparru eguneratua, erraza, argia eta bakarra ezartzea Arabako foru sektore publikoan; izan ere, 1989tik, foru sektore publikoko erakunde horien tasa eta prezio publikoen kudeaketa eta likidazioa sakabanatuta dago erakunde horiek sortzeko arauetan eta ekitaldi bakoitzeko aurrekontua gauzatzekoetan.

-III-

Foru Arau hau Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriari lotuta dago. Horren arabera, foru lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatzen dira eta, aldi berean, foru araubidea Konstituzioaren eta Euskadiko Autonomia Estatutuaren (abenduarien 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartu zen) esparruan oro har eguneratzeko agintzen da; horrek arlo horretako funtsezko printzipiotzat jotzen du Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako erakunde eskudunek beraien zerga eta finantza sistema mantendu, ezarri eta arautu ahal izatea.

Bestalde, maiatzaren 23ko 12/2002 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duenean, kokatzen da; hain zuzen, 38. artikuluan aitortzen du foru aldundien eskumena dela eska daitezkeen tasak ordainaraztea beraien jabari publikoaren erabilera edo aprobeitxamendu bereziagatik, zerbitzuak emateagatik eta zuzenbide publikoko araubidean foru aldundiek eurek egiten dituzten jarduerengatik.

Era berean, autonomia erkidegoko eremuan, azaroaren 25eko 27/1983 Legean, autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoan, kokatzen da; izan ere, haren 14. artikulua lurralde historikoei beren eskumenak gauzatzeko finantza eta aurrekontu autonomia bermatzen die, aipaturiko Autonomia Estatutuaren esparruan, Lurralde historikoen Legean bertan eta aplikatzekoak diren legeetan jasotako xedapenekin bat etorritik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiarekin koordinatuta. Haren 18. artikuluan, 1.b) eta 1.g) ataletan, berariaz esaten du lurralde historikoetako foru ogasunek, haien foru organoei dagozkien eskumen guztiak behar bezala gauzatzeko eta finantzatzeko, sarrera arrunt hauek edukiko dituztela: *“Kondaira-Lurraldeen Herri-Jabetzapeko ogasunez baliatzeagatikako eta bere agintepeko zerbitzuez baliatu izanagatikako edo norbanakoei doazkien edo hoi onetangoak izan daitezkeen ekintzapideagatikako arielak”* eta *“Konstituzioan eta Autonomia-Estatutoan agindutakoaren ondorioz sortarazi daitezkeen beste dirueskuraketa guztiak”*.

Bestalde, foru arau honek estatuko apirilaren 13ko 8/1989 Legeak, tasa eta prezio publikoenak, tasa eta prezio publikoen arloan eraturako oinarriko legeria aplikagarria errespetatzen du. Duela gutxi, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, sektore publikoko kontratuenak, aldatu du; horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak Espainiako antolamendu juridikora aplikatzen dira. Gainera, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauarekin, Arabako zerga orokorrari buruzkoarekin, eta abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauarekin, Arabako Foru Aldundiko ekonomia, finantza eta zerga araubidearenarekin, koordinatzen da.

-IV-



Nahitaez, foru arau hau beharraren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientiaren ondo arautzeko printzipioekin bat dator, izapidetzean egindako txostenek eta memoriak agerrarazten duten moduan.

Horri dagokionez, foru arau hau izapidetzean, 1/2017 Foru Araua (arestian aipatu dugu) errespetatuz, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak xedatutako xedapen orokorrak prestatzeko prozedurari jarraitu zaio. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren urtarrilaren 19ko 18/2018 Foru Aginduaren bidez hasi zen eta aldez aurretik herritarrei kontsulta egin zitzaien; horretarako, egiten ari zelako iragarkia argitaratu zen Arabako Foru Aldundiaren gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren web orrian, 2018ko urtarrilaren 29tik otsailaren 13ra arte.

Herritarrei egindako aldez aurretiko kontsultaren emaitza memoria batean jaso zen.

Ondoren, aurreproiektu honen proposamena egin zen. Herritarrei egindako aldez aurretiko kontsultaren emaitza, 18/2018 Foru Aginduan adierazitakoa eta 29/2017 Foru Dekretuan agindutakoa jasotzen ditu.

-V-

Azkenik, foru arau honen testua izapidetzeko, emakumeen eta gizonen egiazko desberdintasuneko egoerak, talde horien arteko berdintasun juridiko edo formalaren printzipioa formulatuz soilik zuzendu ezin direnak, kentzeko aukerak aztertu dira, foru arau honen genero eraginaren aurretiko ebaluazio txostenak egiaztatzen duen moduan. Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak, 15. artikuluan agindutakoa betez egin zen, Arabako Foru Aldundia behartzen baitu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa aplikatzera bere arau xedapenak erabaki eta gauzatzean; halaber, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 19. artikuluan xedatutakoa bete zen, xedapen honen genero eragina ebaluatzeko txosten hori egitera behartzen baitu.



ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. XEDEA.

Foru arau honen xedea da zuzenbide publikoko baliabide hauen araubide juridikoa arautzea:

- a) Tasak.
- b) Prezio publikoak.

2. ARTIKULUA. APLIKAZIO EREMUA

Foru arau honen manuak ezingo zaizkie hauei aplikatu:

- a) Zuzenbide pribatuko arauen arabera diharduten Arabako sektore publikoko erakundeek egiten dituzten jarduerengatiko eta ematen dituzten zerbitzuengatiko kontraprestazioa.

Ondorio horietarako, honako hauek daude Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoan: Arabako sektore publikoaren ekonomia, finantza eta aurrekontu araubidea arautzen duen foru araudian halako gisa definitzen eta sailkatzen diren erakundeak.

- b) Erabiltzaileek obra erabiltzeagatik edo zerbitzua emateagatik obra eta zerbitzuen kontseziodunei ordaintzen dizkieten tarifak, sektore publikoko kontratuen legeriaren arabera, zergaz besteko ondare prestazio publikoak dira eta.

3. ARTIKULUA. AURREKONTU NEURRIAK

1. Foru arau honetan araututako baliabideak, Arabako Foru Aldundiari eta haren erakunde autonomoi dagozkienak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak baimendutako banku kontuetan sartuko dira.
2. Arabako foru sektore publikoko gainerako erakundeei dagozkien eskubideen bilketa, zaintza eta sarrera haiei aplikatu behar zaizkien arauak arautuko dituzte.
3. Foru arau honen lehen artikulua aipatzen duen baliabideen errendimendua osorik aplikatuko zaio dagokion ekitaldiko sarreraren aurrekontuari, eta ezingo da ezer kendu edo gutxitu, foru arau honen 11. artikuluan xedatutakoaz gain.
4. Foru sailek, ogasun, finantza eta aurrekontuen arloan eskumena duen foru sailarekin batera, foru gobernuari proposatu ahalko diote Arabako Foru Aldundiko organoek, erakunde autonomoek edo foru sektore publikoko beste erakunde batzuek ezar ditzatela foru arau honetan araututako zuzenbide publikoko sarrerak, baita horiek eguneratzea edo ez aplikatzea ere, bidezkoa denean.

4. ARTIKULUA. EZ BETETZEAGATIKO ERANTZUKIZUNAK

1. Enplegatu publikoek, haiekin parekatutako langileek edo agintariek, borondatez eta beren erruz tasa edo prezio publiko bat bidegabeki eskatzen badute edo ezarritakoa baino munta handiagoa eskatzen badute, diziplina falta oso astuna egingo dute. Gainera, haien jarduketaren ondorioz bestelako erantzukizunak sortu ahalko dira.
2. Modu berean foru arau hau eta arlo hau arautzen duten gainerako xedapenak hausten dituzten ebazpenak ematen edo egintzak egiten badituzte, gainera, kalte ordainak eman beharko dizkiote foru ogasunari egindako kalteengatik.

5. ARTIKULUA. ORDAINKETA

Tasa eta prezio publikoak ordaintzeko, honako hauek erabili ahalko dira: eskudirua, teknika eta baliabide elektronikoak, informatikoak edo telematikoak eta, Arabako Foru Aldundiak baimentzen duenean eta arauz zehazten diren baldintzetan, finantza erakundeek jaulkitako kreditu edo zordunketa txartelak edo efektu tinbredunak.

6. ARTIKULUA. ITZULKETA

1. Eskatutako tasak itzuli beharko dira zerga gaia gauzatzen ez denean subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik.



2. Era berean, ordaindutako prezio publikoaren zenbatekoa itzuliko da zerbitzua ematen ez denean edo jarduera egiten ez denean ordaintzera behartuta dagoen pertsonari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik; ikuskizunei dagokienez, sarrerak trukatuko dira ahal denean.



I. TITULUA. TASAK.

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

7. ARTIKULUA. KONTZEPTUA ETA APLIKAZIO EREMUA.

Tasak zergak dira eta haien zerga gaiak honako hauek dira: jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea zuzenbide publikoko araubidean, hain zuzen ere zergapekoa den pertsona fisiko edo juridikoa ukitzen dutenak, hari eragiten diotenak edo onura ekartzen diotenak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak ez badute zergapekoek berek borondatez eskatu edo jaso edo ez baditu sektore pribatuak ematen edo egiten.

8. ARTIKULUA. BALIOKIDETASUNAREN PRINTZIPIOA

Tasen helburua zerga gaia den zerbitzuaren edo jardueraren kostua estaltzea izango da.

9. ARTIKULUA. AHALMEN EKONOMIKOAREN PRINTZIPIOA

Tasak ezartzean kontuan hartuko da horiek ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa, zergaren ezaugarriek horretarako aukera ematen badute.

10. ARTIKULUA. TASEN ARAU ITURRIAK

Tasak arautzeko honako hauek hartuko dira aintzat:

- a) Tasei buruzko klausulak dauzkaten eta ofizialki argitaratu diren nazioarteko tratatuak edo hitzarmenak, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Ituna onesten duen araudian xedatutakoarekin bat etorritz.
- b) Foru arau hau, Arabako zergei buruzko Foru Araua eta Arabako ekonomia eta aurrekontu araubidea arautzen duen Foru Araua, kontrakoa agintzen ez duten heinean.
- c) Hala badagokio, tasa bakoitzaren foru araua.
- d) Arloa arautzen duten foru legeak eta arauak garatzeko emandako erregelamendu xedapenak.

11. ARTIKULUA. EZARKETA ETA ARAUKETA

1. Tasak ezartzeko eta haietako bakoitzaren funtsezko osagaiak arautzeko, foru araua bete beharko da.
2. Foru arau honen II. kapituluan zehaztutakoak tasen funtsezko elementuak dira.
3. Foru arau baten bidez baimenduz gero, tasa bakoitzerako eska daitezkeen zenbatekoak erregelamendu arau baten bidez zehaztu ahal izango dira, baimenean ezartzen diren kuantifikatzeko irizpideak edo elementuak kontuan hartuz.

12. ARTIKULUA. AURREKONTU AURREIKUSPENA

Tasen ordainarazpena Arabako foru sektore publikoko erakundeen aurrekontuetan aurreikusi behar da.

II. KAPITULUA. TASAREN ZERGA LOTURA JURIDIKOA.

13. ARTIKULUA. ZERGA GAIA

Tasak ezarri ahal izango dira foru eskumeneko zuzenbide publikoko araubideko zerbitzu edo jarduera hauetako bat eman edo egiteagatik:

- a) Lizentziak, bisak, matrikulak edo administrazio baimenak izapidetzea edo ematea.
- b) Ziurtagiriak edo agiriak egitea alderdi batek eskatuta.
- c) Liburuak legeztatzea eta zigilatzea.
- d) Zaintzeko, zuzentzeko, ikuskatzeko, ikertzeko, azterlanak egiteko, txostenak egiteko, aholkatzeko, egiaztatzeko, arakatzeko nahiz prospekzioak egiteko jarduketa teknikoak eta fakultatiboak.



- e) Proiektuak aztertzea, egiaztatzea, erkatzea, saioak edo homologazioak egitea.
- f) Balioespenak eta tasazioak.
- g) Erregistro ofizialetan eta publikoetan inskribatzea eta oharrak egitea.
- h) Zerbitzu akademikoak eta osagarriak, hala badagokio.
- i) Aireportuko zerbitzuak, hala badagokio.
- j) Osasun zerbitzuak, hala badagokio.
- k) Izangai gisa parte hartzea foru sektore publikoko erakundeetan enplegu publikoa eskuratzeko oposizioetan, lehiaketetan edo hautaprobetan, baita foru administrazioak Europar Batasunaren barruan araututako lanbideetan aritzeko aurretiko betekizun gisa antolatzen dituen gaitasun probetan ere.
- l) Ordena zibilean, administrazioarekiko auzien ordenan eta ordena sozialean jurisdikzio ahala erabiltzea, hala badagokio.
- m) Pertsona jakinak ukitzen dituzten, haiei eragiten dieten edo onura ekartzen dieten nahiz haiek zuzenean edo zeharka eragin dituzten zerbitzuak edo jarduerak oro har.

14. ARTIKULUA. LURRALDE APLIKAZIOA

Zuzenbide publikoaren araubidean zerbitzu edo jarduerengatik tasak horiek eman edo egiteagatik eskatuko dira, eta horretarako ez du garrantzirik edukiko zerbitzua ematen den edo jarduera egiten den lekua Arabako Lurralde Historikotik kanpo egoteak.

15. ARTIKULUA. SORTZAPENA

1. Tasak, zerga gaiaren izaeraren arabera, honako kasu hauetan sortu ahalko dira:
 - a) Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia ematen denean edo zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean; nolana ere, alde aurretik ordaintzeko eska daiteke.
 - b) Jarduketa edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean. Hura egin edo izapidetu aurretik behar den kopurua ordainduko da.
2. Tasak aldizka sortzen direnean, dagokion erregistro, errolda edo matrikulako altaren likidazioa jakinarazitakoan, hurrengo likidazioak batera jakinarazi ahalko dira Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz.

16. ARTIKULUA. TASEN SUBJEKTU PASIBOA

1. Taseen subjektu pasiboak izango dira jabari publikoaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren onuradunak diren pertsona fisiko edo juridikoak edo haien zerga gaia diren zerbitzu edo jarduerak pertsonalki nahiz beren ondasunetan eragiten dietenak edo onura dakarkietenak.
2. Hala badagokio, subjektu pasiboak izango dira jaraunspen jasogabeak, ondasun erkidegoak eta nortasun juridikorik eduki ez arren zergapean gertatzen diren batasun ekonomikoa edo ondare banandua diren gainerako entitateak.

17. ARTIKULUA. TASAK ORDAINZEAGATIKO ERANTZUKIZUNA

1. Arabako zerga orokorrari buruzko Foru Arauan zerga zorraren erantzukizunaz eta bermeez xedatzen dena gorabehera, tasa baten erantzukizun solidarioa edukiko dute haren zerga gaia den jardueraren edo zerbitzuaren arriskuak estaltzen dituzten aseguru erakundeak edo sozietateak.
2. Etxebizitzen, pabiloien, lokalen edo, orokorrean, higiezin erabiltzaileei edo okupatzaileei onura ekartzen dieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan, erantzule subsidiarioak higiezin jabeak izango dira.

18. ARTIKULUA. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

Foru arau honen 9. artikuluan adierazitakoa gorabehera, tasei dagokienez ez da zerga onurarik onartuko, sektore publikoko erakundeen aldekoak edo nazioarteko tratatu edo hitzarmenetan ezarritakoaren ondoriozkoak izan ezik.



19. ARTIKULUA. TASAREN ELEMENTU KUANTITATIBOAK

1. Jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu beraziagatik ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa finkatzeko, merkatuko balioa edo haren ondoriozko onuraren balioa hartuko da erreferentziazat.
2. Oro har, eta artikulua honetako 3. puntuaren ezartzen denarekin bat etorriz, zerbitzu bat emateagatik edo jarduera bat egiteagatik tasaren zenbatekoa ezingo da izan, guztira, zerbitzuaren edo jardueraren benetako edo ustezko kostua edo, bestela, jasotako prestazioaren balioa baino gehiago.
3. Zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira zuzenean eta zeharkako kostuak, bai eta finantza kostuak, ibilgetuaren amortizazioa eta, behar denean, tasa eskatzea eragiten duen zerbitzua edo jarduera mantentzeko eta haren bidezko garapena bermatzeko behar diren kostuak ere, ordaintzeko erabiltzen den aurrekontua gorabehera.
4. Zerga kuota berariaz adierazitako kopuru finkoa izan daiteke, zerga oinarritzat hartuko diren elementu kuantitatiboak aplikatzen zaien karga tasa baten arabera kalkulatu daiteke edo aurreko bi prozedurak erabiliz ezar daiteke.
5. Ekitaldi bakoitzeko aurrekontua gauzatzeko foru arauak tasen munta aldatu ahal izango dute.

20. ARTIKULUA. EKONOMIA ETA FINANTZA MEMORIA

1. Tasa berri bat ezartzeko edo lehendik dagoen baten muntak berariaz aldatzeko proposamena egiten bada, aurrekariaren eta aurretiazko azterlanaren artean ekonomia eta finantza memoria bat, dena delako baliabidearen edo jardueraren kostua edo balioa zehaztu eta proposatutako tasaren munta justifikatzen duena, egin behar da.
2. Betekizun hori ez betetzeak tasen muntak ezartzen dituzten arauzko xedapenak erabat deusezak izatea ekarriko du.
3. Aurrekoa gorabehera, ez da beharrezkoa izango lehen paragrafoak hizpide duen ekonomia eta finantza memoria eranstea baldin eta oro har errebalorizatu edo eguneratu nahi denean.
4. Jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak berekin hura suntsitzea edo narriatzea badakar eta hori artikulua honetako 1. puntuaren aipatzen den ekonomia eta finantza memorian aurrekustean ez bada, tasaren subjektu pasiboak berreraikitze edo konpontzeko gastuen kostu osoa itzuli beharko du. Kalteak konponezinak badira, kalte ordaina suntsitutako ondasunen balioaren edo ondasun narriatuei eragindako kaltearen zenbatekoaren kopurua izango da.

III. KAPITULUA. TASEN KUDEAKETA ETA LIKIDAZIOA

21. ARTIKULUA. TASEN KUDEAKETA ETA LIKIDAZIOA

1. Tasak Arabako Foru Aldundiak eta Arabako foru sektore publikoko gainerako erakundeek kudeatuko dituzte; Ekonomia Itunean eta gainerako araudi aplikagarrian ezartzen den moduan.
2. Aurrekoa gorabehera, eta tasa bakoitzaren izaera eta ezaugarrien arabera, Arabako Foru Aldundiaz bestelako erakundeek zerga kudeaketako prozeduran parte hartzea ezarri ahalko da erregelamenduz.
3. Arabako foru administrazio sektore publikoa osatzen duten erakundeetako tasen biketa, zaintza eta sarrera horretarako baimentzen diren kontuetan egingo da.
4. Arabako foru sektore publikoko gainerako erakundeek dagozkien tasen biketa, zaintza eta sarrera haiei aplikatu behar zaizkien arauak arautuko dituzte.
5. Tasen kudeaketan Arabako zerga orokorrari buruzko Foru Arauaren printzipioak eta prozedurak aplikatuko dira beti, eta bereziki zerga likidazioak, zergabiketa, zergen ikuskapena eta administrazio bidezko egintzen berrikuspenak arautzen dituzten arauak.



22. ARTIKULUA. AUTOLIKIDAZIOA.

Tasen subjektu pasiboek zergak autolikidatzeko eragiketak egin beharko dituzte eta foru ogasunean ordaindu beharko dute zenbatekoa, erregelamenduz hala xedatzen denean.



II. TITULUA. PREZIO PUBLIKOAK

23. ARTIKULUA. KONTZEPTUA

Prezio publikoak izango dira zuzenbide publikoko araubidean zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek herritarrek beren borondatez eskatzen badituzte eta sektore pribatuak ere eskaintzen baditu.

24. ARTIKULUA. MUNTA

1. Prezio publikoak zehazteko, kontuan izan beharko da jarduerak egiteak edo zerbitzuak emateak sortutako kostu ekonomikoak estaltzeko modukoak edo haiek eragindako onuraren baliokideak izan behar dutela gutxienez.
2. Hala aholkatzen duten arrazoi sozialak, ongintzakoak, kulturalak edo onura publikoak daudenean, aurreko atalean aipatzen diren parametroez beherako prezio publikoak ezarri ahalko dira, diruz lagundutako prezioaren zatia estaltzeko egokiak diren aurrekontu aurreikuspenak egin ondoren.

25. ARTIKULUA. PREZIO PUBLIKOEN EZARKETA ETA ALDAKETA

1. Prezio publikoen munta ezartzeko edo aldatzeko, Foru Gobernu Kontseiluak foru dekretu bat egingo du, arloan eskumena duen sailak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak batera proposatuta, foru arau batek kontrakoa ezarri ezean.
2. Prezio publikoen munta ezarri edo aldatzeko proposamen ororekin batera, haientzat proposatzen den zenbatekoa eta dagozkien kostuen finantza estalduraren maila arrazoituko dituen ekonomia eta finantza memoria bat egingo da.

26. ARTIKULUA. PREZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIOA ETA KOBRANTZA

1. Prezio publikoak Arabako Foru Aldundiak eta Arabako foru sektore publikoko gainerako erakundeek administratu eta kobratuko dituzte, horiek sortzeko araudiarekin bat etorriz.
2. Aurrekoa gorabehera, eta tasa bakoitzaren izaera eta ezaugarrien arabera, Arabako Foru Aldundiaz ezarri ahalko du sektore publikoko beste administrazio, entitate eta erakunde batzuek administrazio eta kobrantza prozeduran parte hartzea.
3. Prezio publikoak eskatu beharra sortzen duen zerbitzugintza hasten denetik eskatu ahal izango dira. Hala ere, horien zenbateko guztia edo zati bat aurreratzea edo aldeztu aurretik gordailua jartzea eskatu ahalko da.
4. Foru arau honek berariaz aurreikusten ez dituen kasuetan, prezio publikoak Arabako ekonomia eta aurrekontu araubidearen Foru Arauan, Arabako zerga orokorrari buruzko Foru Arauan eta horiei aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoaren arabera administratu eta kobratuko dira.



XEDAPEN IRAGANKORRA

Tasa eta prezio publikoak foru arau hau indarrean sartzen denean aplikatu behar diren arauen arabera eskatzen jarraituko dira, harik eta haren 10. artikuluan edo 25. artikuluan jasotako xedapenek eragina izan arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da azaroaren 20ko 64/1989 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren tasa eta prezio publikoak arautzen dituen, eta foru arau honetan ezartzen denaren kontra dagoen maila bereko eta beheragoko mailako gainerako xedapen guztiak ere bai.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGOA

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

BIGARRENA

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean foru arau hau.